

Getxo > MEETING <



Azaroak 12 Aholkua eskatzeko gomendioak

Dakizuenez, Getxo MEETING bakoitza desberdina da, udalerriko pertsona ekintzaileoi kezkatzen gaituen gai desberdin bat jorratu ahal izateko saio bakoitzean.

Online egin zen azken bileran aholkuak trukatu genituen.

Aholkuak ondo jasotzen dira horiek eskatuz gero.

Edo gaia ondo ezagutzen duen norbaitek ematen badizkizu.

Edo ondo ezagutzen zaituen eta zaren moduan onartzen zaituen norbaitek ematen badizkizu.

Gure kasuan, lehenengo bi aukerak bete ziren. Hori bai, errespetu askorekin aritu ginen, eta hori ere funtsezkoa da. Elkar ezagutzen ez baduzue ere, errespetua dagoenean, elkarri entzuten diozue.

Aholkuak behar bezala eskatzeko, ezinbestekoa da lehenengo banaka hausnartzea. Baina aurretik ez baduzu introspektorik egiten, baliteke iritzia eskatzen aritzea jada argi dagoen zerbaiti buruz.

Halaxe da egin genuen ariketa praktikoa: helburua da geure burua argitzea zerbaiten gaineko iritzia eskatu aurretik.

Egin nahi al duzu? Arkatza eta papera hartu eta ekin.

Galdera gakoak:

- Gaia: (Zer egin nahi duzu?)
- Zertarako? (Ekintza horren azken helburua)



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

- Zeintzuk dira helburu hori betetzeko jada eman ditudan urratsak?(Ziur asko ez zara zerotik hasiko, zertxobait egin duzu aurrera, gutxi iruditzen bazaizu ere)
- Zein galdera egiten diot orain neure buruari?.....(Galdera ireki bat aukeratu).

Azken puntu hori azalduko dugu: Aholkua eskatzen duzunean hobeto da galdera ireki bat izatea buruan, hau da, "bai" ala "ez" esanaz erantzuten ez dena.

Galdera itxi bat (bai/ez) erabaki bat hartzea da eta, bide batez, zuk hartu behar duzu erabaki hori. Zerbait ez baduzu argi, atzerapauso bat eman behar da erabaki hori hartu aurretik; izan ere, aurrera egiteko behar duzun horretan sakontzea falta zaizu.

Hau da, galdera ireki bat egitea kazetaritzako 5 W galderetako bat aukeratzea da:

- Who / Nor
- What / Zer
- When / Noiz
- Where / Non
- Why / Nola

Proposatutako ariketa egin ondoren, askoz errazago irudituko zaizu zehazki zein galdera egin nahi duzun erabakitzea, benetan jakin behar duzun horretara zuzenduta egongo delako.